



V. ERANSKINA

2020–2021 IKASTURTEKO KIROL ESKOLETAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA PREBENTZIO-NEURRIAK EZAGUTZEKO, ONARTZEKO ETA HAIEKIN KONPROMETITZEKO DOKUMENTUA

ERAKUNDEKO TEKNIKARIAK ETA GAINERAKO PERTSONALA

..... jaunak/andreak, NAN/AIZ zenbakia
duenak

HONAKOA ADIERAZTEN DUT:

- Jaso eta irakurri dut jardueraren ardura duen Bera Bera Kirol Elkarteak COVID-19ari aurre egiteko prestatu duen Prebentzio eta Jarduketa Protokoloa, eta badakit bertan zer ezartzen den.
- Protokoloan ezarritako neurrien inguruan kirol elkartearekin elkarlanean jarduteko konpromisoa hartzen dut, bereziki zuzentzen ditudan jardueren barruan nire ardurapean dauden adingabeek bete behar dutenari lotutakoak eta, kirol-jardueren barruan zein jardueretatik kanpo, hirugarrenak kutsatzeko arriskua ekiditeko neuk eduki behar dudan erantzukizunari lotutakoak.
- Saio, entrenamendu edo lehiaketa bakoitzaren aurretik egiaztatuko dut nire osasun egoera, eta COVID-19ari lotuta egon daitezkeen sintoma ohikoenetako bat badut, adibidez, 37^otik gorako sukarra, hotzikara, eztula, airea falta denaren sententzioa, usaimena eta dastamena galtzea, eztarriko mina, giharretako minak, buruko mina, ahulezia oro har, beherakoa edo gorakoa, ez naiz jarduerara joango. Horrez gainera, berehala emango diot egoera horren berri kirol elkarteko osasun-arduradunari eta dagokion osasun-zentroari.
- Era berean, Kirol Elkarteko osasun-arduradunari jakitera emango diot nire familiako bizikidetzaren unitateko pertsona bat COVID-19a diagnostikatu diotelako isolatuta badago edo COVID-19aren sintomak dituen edo COVID-19a diagnostikatu dioten pertsona batekin harreman estua izateagatik etxean berrogeialdia betetzen ari bada.
- Baimena ematen dut, baldin eta COVID-19a diagnostikatutako pertsonen kontaktuak aurkitzeko osasun-agintariek eskatzen badute, Kirol Elkartea nirekin harremanetan jartzeko erregistratuta dituen datu pertsonalak emateko.
- Ni ez nago osasun-agintariek ezarritako arrisku-talderen batean, edo, hala balitz, egoera horren berri emango diot Kirol Elkartearekin jarduerari hasiera eman aurretik, eta, kasu horretan, nire erantzukizunpean parte hartuko dut jardueran.
- Onartzen ditut Kirol Elkarteak parte hartzeko 2020-2021 ikasturterako ezarritako baldintzak.

Donostian, 2020-ko _____ren ____ (e)an

Izenpetua: